

NAZIOARTEKO EUSKALARIEN JARDUNALDIAK

Gernika, 1979-VIII-31

Juan San Martin

Asmoa

1. Herbesteko eta Euskal-Herriko euskalariekin hitzaldiak.

– Euskalari bakoitzak hamabost edo hoge minutuko hitzaldia eman-go luke, eta bere gaia, euskarari buruz eskuartean duen lana, txosten gisa, adieraztea izango da.

– Hizlari guziak, edo gehienak, euskaraz mintzatuko dira.

– Hitzaldia idatzirik ekarri beharko dute. Gero, guk, artxiboan izan dezagun nor zertan ariden jakiteko eta aurrerantzean partaideekin harremanetan jarraitu.

– Orain bakoitza bere aldetik ari da, inoiz elkarren berri jakin gabe, eta euskalari sakabanatu hoi lanak, ondorean gure EUSKERA aldizkariaren inguruan biltzea ekarriko luke.

2. Euskalarien artean harremanak zabaltzeaz.

– Aurkiketa hoiekin, orain elkar pertsonalki ezagutzen ez direnek elkar hobeto ezagutzeko aukera idekiko luke, aurrerantzean harreman estuagoan izatea lortu eta euskararen ikerketak bizkortu. Lehendik ezagutzen direnak heurak ere harreman estuagoetara bultzaraziz.

– Lan berdinak edo berdintsuak egiten ari direnen artean elkarren berri eta laguntzak indartzea ere lortu lezake.

– Hitzaldien ondorengo elkarrizketaz, ikerketa hutsuneak non dauden eta zer bide hartu behar duten begiratu edo estudiatu.

– Eta, azkenik, biharko egunean Euskal-Herriko Unibertsitatearekin batean Kongreso edo Batzar nagusi bat burutzeko bideak ideki. Lan hau, eta hemendik aurrerakoa, gure iker sailaren bidez eroateko.

Beste ondorio batzuk

1. Aurkiketak beren zabalkunde hotsa izango dute:

a) Herriari erakutsi gizon ospetsu eta jakintsuak euskaraz arduratzera direla.

b) Ondorio bezala, haiek euskaraz mintzatzen direlarik, gure hizkuntza ikasteko gogoia sortarazi edo bizitu herriagan.

c) Era berean, egungo gizarte egoerak eskatzen digunaren arabera, errespetua lortu, zientzia mailan, euskararen alde. Gure hizkuntza gutietirik eta bazterturik eduki bai du herriak kultur mailetan itzalik erakutsi ez duen konplexoz.

d) Ekintza honek, gainera, esan beharrik ez dago, Euskal-Herri eta Espainiako Estaduaren barnean, alderdikerien gaintik, begiramen hobea lortuko duela gizon politikoen artean ere.

e) Honetarako, behin eta berriz, argi erakutsiko dugu hizkuntza herri baten kultur ondasun maitagarri bat dela.

2. Plangintza guzia, aldeaz aurretik, publizitateko etxe baten bidez propaganda guzia gertatuaz eramango genuke, "Bai Euskarari" kanpainan bezala; herrian ez ezik, agintarien artean ere errespetarazi eta zer pentsa emateko gisa. Honelako propaganda bat behar beharrezkoa zaigu gaur Euskaltzaindiarentzat, politikazko bidegurutze honetan, bere itzala zabalago jartzeko eta euskararen alderako lorpenak handitzeko. Gainera, gure Akademi nortasuna zalantzan jarri nahi dutenen aurrean erakutsi dezagun, holako helburuak lortzeko ahalmena duen erakunde bakarra, gaur gaurkoz, Euskaltzaindia bakarrik dela nor.

3. Euskalarietara, bidaia eta ostatua ordaintzeaz gainera, saria ere eman behar zaie. Beraz, presupuestoa aski handia izanen da. Baina, zabalkundeak, bestalde, berak ekarriko digu diru laguntza, lehen ere hala gerta zaigunez.

4. Ekintza honek maila guzietan izango duen eraginak, euskararen alderako giro berezi hobea bat lortuko du, eta hau izanen dugu beharrezkoaena, probetxugarriena, gure herri guzia, euskaraz arduratzera, euskara ikastera eta erabiltzera bultzatuko duenez. Gaur egungo egoeran, holako ekintzak beharrezkoak ditu gure euskarak, indartsu berbiztuko bada. Historiak honera ekarri gaituanez, hala jokatu beharra dugu. Holako premiarik ez dugun egunean, euskaltzaleok izanen gara zoriontsu.

Oharrak:

Aldez aurretik, gomitatzen diren euskalarien "curriculum" laburrak bildu.

Etorriko diren nazioetako enbaxadore, konsul edo kultur ordezkariak gomitatatu. Honek, beronekin dakar hemengo gobernariak gure atzetik ekartzea, eta guk, eskari bidez, eskaintza konpromisoetara bultzaraztea, gure hizkuntzaren alde.

Lagintza aurrera eramateko bi batzorde osatu behar dira:

a) Aurkiketen eratzaila.

b) Antolatzailea, bidaiaz, ostatuz eta euskalarietara harremanez arduratuko dena.

Horrez gainera, aurkiketen egunetarako, harreman arduradunak, zenbait pertsona Euskaltzaindiaren izenean izendatuz.

Adibidez: L. Mitxelena, J. Haritschelhar, J. Bilbao, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, X. Kintana...